| IL AZALPEN PROBA • *Hitz pozoituak* | |
|---|---|
| Kodea* ............... Taldea ............... | |
| *Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko | |

| | | |
|---|---|---|
| **E**dukia | | / 2,5 |
| **M**oldea | | / 2,5 |
| **Z**uzentas. | | / 5 |
| GUZTIRA | | / 10 |

> Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak…

> Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiaturik egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.

1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: ............

Beldurtuta nago, txarto jokatu dut, beti egiten dut dena txarto. Ez diot Evari deitu behar izan. Ziur oraindik ere gorroto nauela, ez didala barkatu, gauero madarikatzen nauela eta pozik dagoela ni desagertu izanagatik. Txerri baten moduan portatu nintzen: lagunak, ginen eta engainatu egin nuen. Martin lapurtu nion, eta e, neska, sentitzen dut ere ez nion esan. Nire zaindariak, Berak, arrazoi dauka, beti dauka arrazoi, esaten dit bizitza hondatu diodala. Egiten dudana egiten dudala ere, dena hondatzen dut. Ezin dut zikinkeria gainetik kendu, ezin dut, nahiz eta gorputza pitazko eskularru batekin igurtzi gorputza odoletan utzi arte. Haserretzen denean, esaten dit nire moduko pertsona batek hiltzea merezi duela, eta hori dela denek uste dutena.